

## Hitzaurrea

---

2016ko apirilaren 20an egin zen Vitoria-Gasteizen *Euskal autogobernuaren etorkizuna: ereduaren azterketa eta dimensio europarra* tituluko jardunaldia. Ger-takari aparta izan zen benetan, ez baita ohikoa izaten halako jardunaldi batean parte hartzea horren maila handi eta homogeneoarekin esku-hartze guzietan. Hori dela eta, zilegi da aitortzea zuzendari Juanjo Alvarezek lan bikaina egin zuela, hizlariet azalpen ezin hobeak eskaini zituztela eta Eusko Ikaskuntzak antolatzeko gaitasun handia erakutsi zuela.

Jardunaldira joateko zortea izan genuenok informazio laburtu eta garrantzi-sua jaso genuen autogobernu-kasu oso interesgarri batzuei buruz: Eskozia, Flandes, Suitza eta Bavaria. Horrez gain, hausnartu egin zen Europaren eskualdeek duten funtzioari buruz eta barneko zabalkuntzaren inguruko erronkari buruz. Amaitzeko, nabarmendu beharra dugu, oso gutxitan egiten baita, arratsaldean, euskal alderdi politiko nagusietako ordezkariek hartu zutela parte jardunaldian, mahai-inguru batean alegia; gainera, Eusko Legebiltzarreko presidente andreak ere parte hartu zuen –autogobernuari buruzko lantaldeak egindako lanak aurkeztu zituen–, baita Le-hendakariak berak ere, jardunaldiari amaiera emanez.

Hori guztia dela eta, esan beharra dugu ez zela edonolako jardunaldia izan. Antolaketa akademiko zainduak, hizlarien mailak eta erakundeen eta politikarien parte-hartze handiak erakusten dute zer nolako garrantzia eman nahi izan zioten ekitaldiari.

Nolabait esateko, euskal autogobernuaren inguruan Legebiltzarrean azken urteetan egindako lanak amaitzeko eta eztabaidea gizartera zabaltzeko saio bat izan zen. Eusko Legebiltzarreko lantaldeak ezin izan bazuen ere gai nagusien inguruan akordioetara iritsi, batzuek beste kutsu bat antzeman genuen Legebiltzarreko presidenteak egindako aurkezpenean eta alderdi politikoen arteko eztabaidearen zati handi samar batean: ez hain ideologikoa, bai konstruktiboagoa.

Badirudi indar politiko guztiak barneratzen ari direla sakon eztabaideatu beharra dagoela autogobernuaren inguruan. Mundua asko aldatu da trantsizioaren garaitik, baita Europar Batasuna ere, eta berriz pentsatu beharko genuke autogobernuaren ereduari buruz eta, bereziki, euskal herriak munduan izango duen doikuntzari buruz.

Horretarako, ezinbesteko dugu eredu baliagarri guztiak aztertzea. Jardunaldian erakutsi zirenek aniztasun handia dagoela bistarazi zuten. Ez daude bi kasu berdin. Egia baldin bada ere errealitate nazional eta erregional askok autogobernua nahi dutela, ez dago eredu bakarrik nahi hori politika eta erakunde mailan egituratzeko. Alabaina, europar esparru politikoa da horien guztien elementu komun bat, jardunaldiaren azpitituluak aipatzen duen moduan.

Izan ere, gaur egun ezin daiteke euskal autogobernuaren etorkizuna pentsatu Europar Batasuna aipatu gabe. Ez soilik duen garrantzi ekonomiko, legegile edo politikoagatik, paradigma berri bat delako baizik. Amerikako eta Frantziako iraultzek demokraziaren kontzeptu modernoa eman zioten munduari, estatu-esparrura mugatuta bazegoen ere, baita federalismoa eta Estatu-nazioa kontzeptuak ere. Egungo European ezin daiteke botere politikoa europar dimentsiorik gabe ulertu eta, era berean, demokrazia ezin daiteke estatu-esparrura mugatu eraginkorra izan nahi badu.

Bigarren Mundu Gerraren ostean sortutako erronken aurrean, integrazio politikoa izan da Europaren erantzuna. Artean ere potentzia ziren zenbait Estatuk uko egin behar izan zioten beren subiranotasuna alde bakarrez egikaritzeari, euren politikak koordinatu behar izan zituzten eta elkarrekin erabaki behar izan zuten gero eta gai gehiagoren inguruan. Egungo European Estatu izatea egitura politiko zabalago batean integratzea da. Aipatutako esparrua nahita onartu eta negoziatu da. Hortaz, posible da nazio anitzeko egitura politikoak sortzea, betiere errespetutik eta elkarrekiko onarpenetik abiatuta.

Europar integrazioak erakutsi du kontzeptu politikoak eta juridikoak egunerau eta egokitu daitezkeela, borondate politikorik izanez gero, egoera aldakorreran diren gizarteentzat baliagarriak izateko. Subiranotasunaren kontzeptu zaharra bat-batean desagertu zen 1950eko maiatzean, lehen europar erkidegoa osatu zenean. Baino horrek ez du esan nahi desagertu egin direnik Estatuak edo haien garrantzia. Oraindik ere Estatuak dira onartutako subjektu politiko nagusiak. Ordea, ikusi da esparru politiko zabalagoetan integratzeko aukerarik ematen ez zuen Estatu-definizioaren ordez, beste bat malguagoa hasia dela erabiltzen.

Era berean, nazionaltzat definitutako estatu-demokraziak ere esparru politiko berrira egokitu behar izan dira, eta gorantz zein beherantz hedatu behar izan dira. Ez al da hori nazio anitzeko benetako demokraziaren jatorria? Beraz, geure buruari galdu beharko diogu zergatik den oraindik tabua Europa mailan onartzen diren printzipio berberak Estatu kideetan aplikatzea.

Aipatutakoa ulertea lagungarri litzateke etorkizuneko autogobernuari buruzko eztabaida lasaitzeko eta desdramatizatzeko. Euskal herriak erabakiko balu ere Estatua partekatzen jarraitzaiza zein bere estatua osatzea, kasu bietan jarraituko luke egitura politiko zabalago baten parte izaten. Subiranotasunaren esanahia aldatuz, autogobernua ez da zero batzen duen joko bat izango, non batek irabazten duena besteak galduko duen. Subiranotasuna partekatzen denez, erabaki beharrekoa da zein maila politikotan kokatzen den herri bat. Joan beharra dugu, hortaz, gure eztabaidetan jasotzen pentsamendu federalaren kontzeptuak eta metodologiak ere, horixe baita egungo Europaren benetako esparru politikoa.

Jardunaldian egindako hitzaldiek, beren izugarritzko aniztasunarekin, erakusten dute nola kasu bakoitzak bere formula propioa aurkitu behar duen. Ez dago erre-zeta magikorik, ezta esportatzeko moduko eredurik ere. Ikas dezakegu beste kasu batzuetatik, baina ezin gaitezke saiatu mimetikoki aplikatzen oso desberdinak diren beste errealitate batzuetan. Hori dela eta, formula federal “simetrikoak” (“alemania erara”) edo estatu mailako konponbide jakobinoak proposatzen dituztenek ez diote, nire ustez, arazoari heltzen ikuspuntu zuzenetik.

Historia, kultura, autogobernu-tradizioa, zuzenbide forala eta abar euskal herriaren izaeraren zenbait ezaugarririk dira, eta ezin daitezke besterik gabe ezabatu ge-

roari buruzko eztabaideatik. Euskal herritarrok geure buruarentzat nahi izan dezakegun autogobernu-eredua demokratikoki definitzeke dago, baina ez da orri zuri bat. Dau-kaguna izango da abiapuntua. Sarrera labur gisa, jarraian aipatzen diren puntuak aipa daitezke.

Gure kultura eta ohitura politikoa konfederala da. Ordea, eredu zaharra dela edo ez duela behar bezala funtzionatzen uste dutenei –horregatik, batzuetan aukera hori ez da ezta proposatu ere egiten gaiaren inguruko eztabaidea askotan– esan geniezaileke iritzi hori dutela ez datorrelako bat beraien historiarekin. Bainan bai geure-arekin. Euskal-nafar egitura-politikoa konfederala da eta sendoa eta egonkorra dirudi. Hori dela eta, oso interesgarria izan zen Suitzaren kasua zehatz-mehatz ezagutzea, aipatutako ohitura politikoaren inguruan dauden adibide gutxienetako bat baita.

Bestalde, autogobernuaren eta horren aukeren inguruko eztabaidea politikoak, askotan, diseinatu egiten dira eztabaidea eta gizartea polarizatzeko. Dena dela, ideologien arteko desberdinatasunak ezin du ezkutatu adostasun handia dagoela euskal eredu sozialaren inguruan. Hori dela eta, gogoratu beharra dugu erakunde-eredua diseinatu egin behar dela elkartasuna eta kohesioa bermatuko duen gizarte-babes maila handia ziurtatzeko. Erakunde-eredu bat, edozein izanda ere, ezin daiteke berez helburu izan. Denek ere behar dute herritarren zerbitzupean egon. Hementxe lagundu dezake kutsu ideologikoaren halako baretez batek zenbait konponbide politiko aurkitzen herritarren babes handiarekin.

Horren inguruan, merezi du aipatzea ezen Estaturik gabeko nazioak oso desberdinak direla barruko egiturari dagokionez, eta beren erakunde-eredua errealtitate horretara egokitutu beharko luketela. Gainera, ia-ia nazio horietan guztietan gehiengoak autogobernu maila handi-handia eskatzen du, ez duena nahitaez zertan sezesioa ekarri. Eskoziako erreferendumari buruzko negoziazioetan ikusi zen Eskoziako gobernuak onetsi egin zuela hirugarren aukera bat gaineratzea, Devo-Max izenekoa, eta Britainiako gobernuak izan zela estatus quo-aren ala sezesioaren arteko eztabaidea polarizatua behartu zuena. Oso-oso atentzio-emangarria da ezen, erreferenduma irabazteko, britainiar gobernuak Devo-Max izenekoaren antzantzko zerbait agindu beharra izan zuela, eta horrek argi erakusten du zein zen eskoziar gizartearren benetako nahia.

Hortaz, autogobernuaren gaineko eztabaideak bi eszenatokiren ingurukoak dira. Alde batetik, berezko Estatu oso baterantz aurrera egiteko aukera. Eztabaidea honetan erretorika ideologizatu klasikoak lekua utzi beharko lieke eredu zehatzei erakunde, lurralde, gizarte etab. aldetik, baretasunez eztabaideatu ahal izatearren beraien abantaila eta eragospenei buruz.

Beste alde batetik, bigarren eszenatokiak berekin dakar egungo Estatu-nazioak egitura plurinacional bihurtzea, non errealtitate nazionalek asetzeko moduko egokitzapen politikoa aurkituko duten. Lehenengo baldintza da onartzea nazio minoritarioa subjektu politiko bereizia dela, ezin daitekeena beste baten azpira bildu. Horren ondorioz, subjektu horrek, demokratikoki sostengatzeaz gain azkenik negoziatu den erakunde-formula, subjektu politiko izaten ere jarraituko du, eta etorkizunean aldatu ahal izango ditu bere autogobernuaren baldintzak. Horixe da giltzarria. Alferrik izango dira konponbide konstituzional guztiak ez badute, halaber, aitortzen subjektu politiko bat dela, berdintasunean oinarritua. Kilbrandon txostenak onartutakoarekin bat etorriz, herri batek baino ezin du erabaki herri den ala ez.

Errealitate endogeno bat da, esparru juridikoaren aurrekoan, eta, beraz, ez da esparru horrek sortua, Konstituzioaren zenbait interpretazio formalistak batzuetan iradokitzten duten bezala.

Horrek eztabaidea bat planteatzen du: nola onets litekeen subjektu-izaera hori ondorioz nahitaez sezesiorik ekarri gabe. Kultura federalaren elementu interesgarri bat, bavariar kasuan ikusten denez, nazio minoritarioaren Estatu-izaera da: subiranotasunik ez duen Estatua, alegia, –Alemania, jada, ez den moduan–, baina bere konstituzio propioa eta onarpen politiko eta formala duena.

Beste bide bat, konstituzioa aldatzeari ekiteko aukera onartzea da, eta se-sioari buruzko erreferenduma egiteko aukera gaineratzea. Eskubide horri egiten zaizkion kritikek gogora ekartzen dizkigute bere garaian dibortzio-eskubideak jaso zituenak. Adierazi beharko litzateke dibortzio-eskubideak ez duela dibortziatu beharrik ekartzen berekin. Eskubide pribatuan gertatzen den bezala, eskubide horrek alde ahularen posizioa blindatzten du, eta alde hori, gogoratu beharra dugu, nazio minoritaria da.

Estatua egitura plurinazional bihurtzeko bidean, Flandeseko kasuak ematen digun beste alderdi interesgarri bat da duen gaitasuna kanpoaldean identitate kultural eta politiko desberdindua sustatzeko. Belgikaren kasuak erakusten digu borondate politikorik izanez gero posible dela berrikuntza instituzionala eta juridikoa. Ez da ulertzen zergatik subjektu politiko batek ezin lezakeen expresiorik izan askatasunez Estatutik kanpo, batez ere interdependentzia sakonen garaia dugun honetan. Dena dela, printzipio horrek leialtasun federalaren printzipioaren garape-narekin lotuta egon behar du.

Amaitzeko, eztabaidea liluragarri honetan bi osagai giltzarri falta dira oraindik ere. Alde batetik, Estatuaren egitura oro har. Spainiako eta Frantziako errealitateak oso bestelakoak dira. Spainiako kasuan, gizarte-sektore zabal batzuek sistematikoki esaten dute begi onez ikusiko luketela Estatuaren nolabaiteko birzen-tralazioa, eta horrek buruz buru egiten du talka daitekeenik autogobernu gorena lortzeko Euskadiak eta Kataluniak egiten dituzten eskaerekin. Horren ondorioz, badirudi bideraezinak direla Konstituzioaren erreforma guztiak baldin ez badira guzitiz asimetrikoak eta konfederalak. Hemen merezi du geldialdi bat egitea Historian eta ikustea antzinako foru erregimenaren ezaugarri konfederalak, erregimen hark, bere arazoekin, XIX. mendera arte iraun baitzuen. Kontua ez da foruak berriro ezar-tea, baina halere ikas genezake beharbada zerbait españiniar tradizio politikoaren partekatzen den euskal-nafar eredu konfederaletik.

Bestalde, amaitzeko, aintzat hartu behar dira Europar Batasunean burutzen ari diren eztabaidak eta garapenak Estatu kide ez diren subjektu politikoak onar-tearen inguruan. Testuinguru egokia emango lioke horrek euskal eztabaideri, zeren onarpen eta partaidetza handiagoa eskatzea Estaturik gabeko eskualde, hiri eta nazioentzat joera orokorra baita Europar Batasunaren barruan.

Igor Filibí  
Nazioarteko Harremanetako irakaslea  
Euskal Herriko Unibertsitatea

## Prólogo

---

El 20 de abril de 2016 se celebró en Vitoria-Gasteiz la jornada titulada *El futuro del autogobierno vasco: Análisis comparado de modelos y la dimensión europea*. Se trató de un verdadero acontecimiento, pues no es habitual asistir a una jornada con un nivel tan alto y tan homogéneo en todas las intervenciones. Por ello, es de justicia reconocer el trabajo del director Juanjo Álvarez, de los ponentes por sus magníficas exposiciones y de Eusko Ikaskuntza por su capacidad organizativa.

Quienes tuvimos la fortuna de asistir recibimos una información sintética y relevante de algunos casos de autogobierno de gran interés: Escocia, Flandes, Suiza y Baviera. Además, se sumaron dos reflexiones sobre el papel de las regiones en Europa y sobre el reto de la ampliación interna. Finalmente, merece ser destacado, por lo poco habitual, que por la tarde participasen en la jornada representantes de los principales partidos políticos vascos en una mesa redonda, así como la presidenta del parlamento vasco, que presentó el estado de los trabajos de la ponencia sobre autogobierno, y el mismo Lehendakari, que vino a clausurar el acto.

Por todo ello no se trató de una jornada más. La cuidada organización académica, el nivel de los ponentes y la nutrida participación institucional y política dan medida de la importancia que se le quiso conferir al acto.

Fue, de alguna manera, el colofón a unos años de trabajos parlamentarios sobre el autogobierno vasco, y un intento de lanzar el debate en la sociedad. Si bien la ponencia del parlamento vasco no fue capaz de alcanzar acuerdos en los principales temas, algunos apreciamos un cambio de tono en la presentación que hizo la presidenta del parlamento y en una buena parte de la propia discusión entre los partidos políticos: menos ideológico y más constructivo.

Parece que todas las fuerzas políticas van incorporando la idea de un debate a fondo sobre el autogobierno. El mundo ha cambiado mucho desde los años de la transición, lo mismo que la Unión Europea, y es conveniente repensar el modelo de autogobierno y, en particular, el encaje del pueblo vasco en el mundo.

Para ello resulta imprescindible analizar los distintos modelos disponibles. Los que se expusieron en la jornada muestran la diversidad existente. No hay dos casos iguales. Si bien es cierto que la voluntad de autogobierno de numerosas realidades nacionales y regionales es un hecho, la forma en que esta voluntad se articula política e institucionalmente no se corresponde con un patrón único. Lo que sí puede considerarse como una suerte de elemento común es el marco político europeo, tal y como señalaba el subtítulo de la jornada.

En efecto, en la actualidad no puede pensarse el futuro del autogobierno vasco sin hacer referencia a la Unión Europea. No sólo por su importancia eco-

nómica, legislativa o política, sino porque supone un nuevo paradigma. Las revoluciones americana y francesa ofrecieron al mundo el moderno concepto de democracia, si bien limitado al marco estatal, así como el federalismo y el Estadonación. En la Europa actual el poder político no se entiende sin la dimensión europea y, del mismo modo, la democracia no puede limitarse al marco estatal si quiere ser efectiva.

La integración política ha sido la respuesta europea a los retos surgidos tras la Segunda Guerra Mundial. Estados que aún eran potencias se vieron obligados a renunciar a un ejercicio unilateral de su soberanía, a coordinar sus políticas, a decidir de forma conjunta sobre cada vez más asuntos. Ser un Estado, en la Europa actual, significa insertarse dentro de una estructura política más amplia. Este marco ha sido voluntariamente aceptado y negociado. Ello demuestra que es posible, partiendo del respeto y del reconocimiento mutuo, la creación de estructuras políticas plurinacionales.

La integración europea ha demostrado que, cuando existe voluntad política, los conceptos políticos y jurídicos pueden actualizarse y adaptarse para servir a sus sociedades en situaciones cambiantes. El viejo concepto de soberanía desapareció de pronto en mayo de 1950, con la construcción de la primera comunidad europea. Ello no significa que hayan desaparecido los Estados o su importancia. Los Estados siguen siendo los principales sujetos políticos reconocidos. Pero se ha visto que la definición del Estado que hacía imposible que se integrase en marcos políticos más amplios se ha visto sustituida por otra más flexible.

Del mismo modo, las democracias estatales, definidas como nacionales, han debido adaptarse al nuevo marco político, extendiéndose hacia arriba y hacia abajo. ¿Qué es esto sino el germen de una verdadera democracia plurinacional? Y esto conduce a preguntarse por qué sigue siendo un tabú aplicar los mismos principios que se aceptan en el nivel europeo dentro de sus Estados miembros.

Comprender esto ayudaría a relajar y desdramatizar el debate sobre el futuro del autogobierno. Tanto si el pueblo vasco siguiese compartiendo un Estado como si decidiese construir uno propio, en ambos casos seguiría formando parte de una estructura política más amplia. Transformado el significado de la soberanía, el autogobierno ya no es un juego de suma cero en el que lo que gana uno lo pierde el otro. Como la soberanía se comparte, lo que está en cuestión es decidir en qué nivel político se sitúa un pueblo. Debemos ir incorporando los conceptos y metodologías del pensamiento federal en nuestras discusiones, porque éste es el verdadero marco político de la Europa actual.

Las exposiciones de la jornada, con su tremenda variedad, muestran que cada caso debe encontrar su propia fórmula. No hay recetas mágicas ni modelos exportables. Se puede aprender de otros casos, pero no se puede intentar aplicarlos miméticamente a otras realidades que son muy distintas. Por ello, quienes proponen fórmulas federales simétricas “a la alemana” o soluciones estatales jacobinas no abordan el problema, en mi opinión, bajo el enfoque correcto.

La historia, cultura, tradición de autogobierno, el derecho foral, etc., son rasgos constitutivos del pueblo vasco que no pueden simplemente borrarse de la discusión sobre el futuro. El modelo de autogobierno que queramos darnos los vascos y vascas está por definir democráticamente, pero no es una hoja en blanco.

Partimos de lo existente. A modo de breve introducción, se pueden sugerir los siguientes puntos.

Nuestra cultura y tradición política es confederal. En contra de quienes sostienen que este modelo es antiguo o no funciona, hasta el punto de que en muchos debates sobre la cuestión ni siquiera se plantea esta opción, se podría sostener que tal opinión se debe a que no se corresponde con su historia. Pero sí con la nuestra. La estructura política vasco-navarra es confederal y parece sólida y asentada. Por ello resultó tan interesante conocer con detalle el caso de Suiza, otro de los pocos ejemplos de esta tradición política.

Por otro lado, las discusiones políticas sobre el autogobierno y sus distintas alternativas suelen diseñarse para polarizar el debate y a la sociedad. Sin embargo, la disparidad ideológica no debe ocultar un amplio consenso sobre el modelo social vasco. A este respecto debería recordarse que el modelo institucional debería ser diseñado para asegurar un elevado nivel de protección social que asegure la solidaridad y la cohesión. Un modelo institucional, cualquiera, no puede ser un fin en sí mismo. Todos ellos deben estar al servicio de la ciudadanía. Es aquí donde una cierta rebaja del tono ideológico puede ayudar a encontrar soluciones políticas con amplio respaldo popular.

A este respecto, vale la pena mencionar que todas las naciones sin Estado son muy diversas internamente y que su modelo institucional debería adaptarse a esta realidad. Además, en prácticamente todas ellas la opción mayoritaria reclama un muy elevado nivel de autogobierno que no tiene por qué implicar necesariamente la secesión. Las negociaciones sobre el referéndum escocés mostraron que el gobierno escocés aceptó la incorporación de una tercera opción, la conocida como Devo-Max, y que fue el gobierno británico quien forzó un debate polarizado entre estatus quo o secesión. Resulta altamente significativo que para ganar el referéndum el gobierno británico debió prometer algo muy parecido al Devo-Max, un indicador claro de cuál era la verdadera voluntad de la sociedad escocesa.

Así pues, los debates sobre el autogobierno giran alrededor de dos escenarios. Por un lado, la posibilidad de avanzar hacia la construcción de un Estado pleno propio. En esta discusión la retórica ideologizada clásica debería dejar paso a la propuesta de modelos concretos institucionales, territoriales, sociales, etc., que permitan un debate sereno sobre sus ventajas e inconvenientes.

Por otro lado, el segundo escenario implica transformar los Estados-nación actuales en estructuras plurinacionales en las que estas realidades nacionales puedan encontrar un acomodo político que les satisfaga. La primera condición es el reconocimiento del carácter de sujeto político distinto, y no subsumible en otros, de la nación minoritaria. Ello implica que tal sujeto no sólo debe apoyar democráticamente la fórmula institucional finalmente negociada, sino que mantendrá su condición de sujeto político, pudiendo modificar las condiciones de su autogobierno en el futuro. Este es el punto clave. Cualquier solución institucional que no incorpore el reconocimiento de ser un sujeto político en términos de igualdad no puede funcionar. Como reconoció el informe Kilbrandon, sólo un pueblo puede decidir si es un pueblo o no. Se trata de una realidad endógena y previa al marco jurídico, y por lo tanto no creada por dicho marco como en ocasiones se sugiere desde ciertas interpretaciones formalistas de la Constitución.

Lo que esto plantea es un debate sobre cómo podría reconocerse tal condición de sujeto sin tener que desembocar en la secesión. Un elemento interesante de la cultura federal, como se ve en el caso bávaro, es la condición de Estado de la nación minoritaria: un Estado que no es soberano, como ya no lo es tampoco Alemania, pero que posee su propia constitución y reconocimiento político y formal.

Otra vía puede ser la del reconocimiento de la posibilidad de iniciar una modificación constitucional que incluya la posibilidad de realizar un referéndum sobre la secesión. Las críticas que recibe este derecho recuerdan a las que en su día recibió el derecho de divorcio. Habría que señalar que el derecho de divorcio no implica la necesidad de divorciarse. Del mismo modo que sucede en el derecho privado, este derecho blinda la posición de la parte débil, que es, hay que recordarlo, la nación minoritaria.

En el camino hacia la transformación del Estado en una estructura plurinacional, otro aspecto de gran interés que proporciona el caso de Flandes es la capacidad de fomentar la identidad cultural y política diferenciada en el ámbito exterior. El caso de Bélgica muestra que cuando existe voluntad política es posible la innovación institucional y jurídica. No se entiende que un sujeto político no pueda expresarse con libertad en el exterior del Estado, máxime en un tiempo marcado por profundas interdependencias. Si bien este principio debe ir acompañado de un desarrollo del principio de lealtad federal.

Finalmente, en este apasionante debate aún faltan dos ingredientes claves. Por un lado, la estructura del Estado en su conjunto. Las realidades española y francesa son muy distintas. En el caso español amplios sectores sociales responden sistemáticamente que verían con buenos ojos una cierta recentralización del Estado, lo que choca frontalmente con las demandas vascas y catalanas de un autogobierno máximo. Ello parece hacer inviable cualquier reforma constitucional que no sea profundamente asimétrica y de corte confederal. Aquí merece la pena detenerse en la historia y ver los rasgos confederales del viejo régimen foral que, con sus problemas, aguantó hasta bien entrado el siglo XIX. No se trata de reinstaurar los fueros, pero quizás sí se podría aprender de un modelo confederal vasco-navarro que es compartido con la tradición política española.

Por otro lado, para concluir, hay que tomar en consideración los debates y desarrollos que se van produciendo en la Unión Europea respecto al reconocimiento de sujetos políticos distintos de los Estados miembros. Esto dotaría del contexto adecuado al debate vasco, pues la demanda de un mayor reconocimiento y participación de las regiones, ciudades y naciones sin Estado constituye una tendencia general dentro de la Unión Europea.

Igor Filibi

Profesor de Relaciones Internacionales  
Universidad del País Vasco